



## ***PRESTAKUNTZA IKASTAROAK BURUTZEN DITUZTEN OREDAINGO BIZTANLEEI LAGUNTZAK EMATEKO ARAUDIA***

### **1. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK**

#### **1.artikulua: Xedea**

Orendaingo herritarrek egiten dituzten prestakuntzetarako edota aisialdiko ikastaroetarako onartuko diren dirulaguntzak arautzea. Xede honen barruan, ondorengo ikastaro hauek lagunduko ditu diruz Orendaingo Udalak: herrian egiten diren ikastaroak, aisialdirako begirale titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak eta euskara ikastaroak.

#### **1. Herrian egiten diren ikastaroak**

**Xedea:** Aisialdirako ikastaroak herrian egiten dituzten orendaindarrak diruz laguntzea

#### **Baldintzak:**

- Denbora librean edota aisialdiko denboran egiten den ikastaroa izatea
- Ikastaroa herrian egitea
- Ondorengo modalitateak edota antzekoak izatea: eskulanak, yoga, pilates, musika instrumentuak, dantza, antzerkia, ingelesa, kirol-jarduerak...
- Ikastaroan %75eko asistentzia izatea
- Ikastaroa dirulaguntza eskatuko den ikasturtean egitea
- Orendainen erroldatuta egotea , dirulaguntza eskaera bideratzen den egunean .

#### **Dirulaguntzaren ezaugarriak:**

Dirulaguntza, gehienez ere, ikastaroaren matrikularen %60koa izango da, gehienez 150 euro ikasleko eta ikasturteko.

#### **Eskabideak:**

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute udalean, beteta eta sinatuta, ikasturte amaieran, uztailaren 15a baino lehen. Eskaerarekin batera honako datuak jasotzen dituen ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute:

- Irakaslearen ziurtagiria, ikastaroa egin izana, asistentzia eta ordaindutako matrikularen zenbatekoa ziurtatzen dituen.



## **2. Aisialdirako begirale titulu ofiziala eskuratzeko ikastaroak**

**Xedea:** Aisialdiko begirale titulua eskuratzeko ikastaroa euskaraz egiten duten orendaindarrak diruz laguntzea

### **Baldintzak:**

- Ikastaroa euskaraz egitea
- Eusko Jaurlaritzak homologaturiko ikastaroa izatea.
- Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditzea.
- Ikastaroa dirulaguntza eskatuko den ikasturtean egitea
- Orendainen erroldatuta egotea dirulaguntza eskaera bideratzen den egunean.

### **Dirulaguntzaren ezaugarriak:**

Dirulaguntza, gehienez ere, ikastaroaren matrikularen %40koa izango da, gehienez 200 euro ikasleko eta ikasturteko.

### **Eskabideak:**

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute udalean, beteta eta sinatuta, ikasturte amaieran, irailaren 30a baino lehen. Eskaerarekin batera honako datuak jasotzen dituen ikastegiak eginiko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute:

- Ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin izana eta alderdi teorikoa gainditu izana ziurtatzen dituen, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroaren homologazio eta hizkuntzari buruzko xehetasunak ziurtatzen dituen.

Ikastaro beragatik beste erakunde pribatu edo publikoren batek dirulaguntzarik eman badio edo oraindik erantzunik ez ezagutu arren beste dirulaguntzarik eskatuta baldin badauka, eskabidea-ren inprimakian bertan azaldu beharko du zein erakunderi eskatu dion eta, dagoeneko erantzuna jaso badu, zein den jasoko duen diru-kopurua.



### **3. Euskara ikastaroak**

**Xedea:** euskara ikastaroak egiten dituzten orendaindarrak diruz laguntzea

Ikastaroa herrian egiten bada, Orendaingo Udalak ordainduko ditu ikasleen matrikulak. Herritarrek euskara ikastaroa herritik kanpo egiten badute, berriz, ondorengo baldintzak bete beharko dituzte dirulaguntza izateko.

#### **Baldintzak:**

- Ikastaroa ondorengo mailetan egitea: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2
- Modalitate mota hauek onartuko dira: aurrez aurrekoa, autoikaskuntza edota on-line
- Ikastaroan %75eko asistentzia izatea
- HABE-ren dirulaguntzak jasotzeko baldintzak ez betetzea
- Ikastaroa dirulaguntza eskatuko den ikasturtean egitea
- Orendainen erroldatuta dirulaguntza eskaera bideratzen den egunean .

#### **Dirulaguntzaren ezaugarriak:**

Dirulaguntza, gehienez ere, ikastaroaren matrikularen %100 eta gehienez 400 euro, A1, A2 eta B1 mailak diren kasuan; eta % 75ekoa izango da, eta gehienez 400 euro, B2, C1 eta C2 mailak diren kasuetan, ikasleko eta ikasturteko.

#### **Eskabideak:**

Eskatzaileek dirulaguntza eskaeraren inprimakia aurkeztu beharko dute udalean, beteta eta sinatuta, ikasturte amaieran, uztailaren 15a baino lehen (ikastaroa ekainera artekoa bada) eta irailaren 30a baino lehen (uda ikastaroa bada). Eskaerarekin batera honako datuak jasotzen dituen ikastegiak eginiko ziurtagiria ere aurkeztu beharko dute:

- Ikastegiaren ziurtagiria, eskatzaileak ikastaroa egin izana, ordaindutako matrikularen zenbatekoa eta ikastaroan izandako asistentzia ziurtatzen dituena.

Ikastaro beragatik beste erakunde pribatu edo publikoren batek dirulaguntzarik eman badio edo oraindik erantzunik ez ezagutu arren beste dirulaguntzarik eskatuta baldin badauka, eskabidea-ren inprimakian bertan azaldu beharko du zein erakunderi eskatu dion eta, dagoeneko erantzuna jaso badu, zein den jasoko duen diru-kopurua.



## **II.- KAPITULUA.- ELEMENTU PERTSONALAK**

### **2. artikulua: Laguntza ematen duen subjektua.**

Orendaingo Udala da laguntza ekonomiko hau ematen duen entitatea.

### **3. artikulua: Udalaren kompetentzia.**

Orendaingo Udalari dagokio, Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordearen bitartez, ondoko kompetentziak egikaritzea:

- a) Laguntza ekonomikoa kudeatzea.
- b) Laguntzaren zenbatekoa zehaztea.

### **4. artikulua: Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordeko lehendakariaren funtzioak.**

Prozedura arduradun nagusia denez, Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordeko Lehendakariari dagokio ondoko funtzioen garapena:

- a) Eskaerak biltzea eta aztertzea.
- b) Emango den laguntzaren txostena burutzea.
- c) Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordea jakinaren gainean jartzea.

### **5. artikulua: Onuradunak.**

Prestakuntza ikastaroen laguntza jasotzeko onuradunek honako baldintza hauek bete behar dituzte:

- a) Orendaingo udalerrian bizitzea eta bertan erroldatuta egotea dirulaguntza eskaera egiten den unean.
- b) Ikastaroan %75eko asistentzia eta probetxamendua izan duela frogatzea.



### **III.- KAPITULUA.- PROZEDURA**

#### **6. artikulua: Tramitazioa.**

Laguntzak emateko tramitazioa ondoko prozedurari egokituko zaio:

- a) Laguntzaren eskaera, zehaztutako beharkizunen indarrez.
- b) Batzordearen Lehendakariaren txostena.
- c) Batzordearen proposamena.
- d) Eskudun organoaren ebazpena.

#### **7. artikulua: Laguntzaren eskaera.**

Formulatzen diren eskaerek ondokoa barne hartu beharko dute:

- a) Interesatuaren izena eta abizenak eta adin gutxikoa bada, berau ordezkatzeko duen pertsonarenak, baita jakinarazpenen eraginetarako adierazten den lekuaren identifikazioa ere.
- b) Eskaera gauzatzeko deneko kausa argi eta garbi adieraztea.
- c) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

#### **8. artikulua: Gaineratu behar den dokumentazioa.**

Eskaerari honako dokumentazio hau gaineratuko zaio:

- a) Eskatzailearen NAN fotokopia.
- b) Ikastaro subentzionagarriari dagozkien matrikulen, ordaindutako kuoten edota ordaintzeko dauden zenbatekoen frogapena.
- c) Prestakuntza osagarriaren edo ikastaroaren asistentzia % 75ekoa izan denaren egiaztagiria.
- d) Eta beste inolako dirulaguntzarik ez dela jaso egiaztatzea, euskara ikastaroak diren kasuetan.

#### **9. artikulua: Eskaerak aurkezteko epea.**

Eskaerak Udalaren Erregistroan, ondoren esaten den bezala:

- a) Herrian egiten diren ikastaroen kasuan, eskaerak uztailaren 15erako



- b) Aisialdirako begirale titulua eskuratzeko ikastaroen kasuan, eskaerak irailaren 30erako
- c) Euskara ikastaroen kasuan, ikastaroa ekainera artekoa bada, eskaerak uztailaren 15erako, eta uda ikastaroa bada, irailaren 30erako

#### **10. artikulua: Batzordeko Lehendakariaren txostena.**

Eskaerak erregistratu ondoren, Batzordeko Lehendakariak dagokion txostena jaulkiko du Batzordearentzat.

#### **11. artikulua: Batzordearen proposamena.**

Eskatzailearen dokumentazioa jaso eta Lehendakariak txostena jaulki ondoren, Hezkuntza, Kultura, Euskara, Kirola eta Gazteria Batzordeak kasua aztertuko du eta laguntzaren onarpena eta zenbatekoa proposatuko ditu.

#### **12. artikulua: Ebazpena.**

Azterketa-proposamenaren erabakiak eskudun organoaren iritzipean jarriko dira, eta honek eskatzaileari hartutako ebazpena jakinaraziko dio.

#### **13. artikulua: Laguntza emakida**

Eskatutako dirulaguntzaren emakida jakinaraztekoan Orendaingo Udalak emandako zenbatekoa adieraziko da.

### **IV. KAPITULUA.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA.**

**14. artikulua:** laguntzaren zenbatekoaren emaitza ateratzeko honako aldagai hauek kontutan hartuko dira:

- Ikastaroaren matrikula.
- Ikastaroaren hileko ordainketa.

### **V-KAPITULUA – INTERPRETAZIOA**

**15.artikulua:** Udalak edozein eskaeraren aurrean erregelamendua interpretatzeko ahalmena izango du, legeak eta erregelamenduak ezarritako printzipioak errespetatuz.